



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

UDAL ANTOLAKUNTZA 39/2015 ETA 40/2015 LEGEETARA EGOKITZEKO ZUZENDARITZA-BATZORDEA ETA BATZORDE TEKNIKOA SORTZEKO 2017KO DEKRETUA ALDATZEA

Gasteizko Udaleko alkateak udal antolakuntza 39/2015 eta 40/2015 Legeetara egokitzeko zuzendaritza-batzordea eta batzorde teknikoaren sortzeko dekretua izenpetu zuen 2017ko apirilaren 7an.

Zuzendaritza-batzordea —erabakiak hartzeko, kontsultarako nahiz gatazka eta gorabeherak ebazteko organo goren— honakoek osatzen zuten:

- Alkatetzako, Ekonomia Arloko eta Funtzio Publikoko koordinatzaile nagusia.
- Arlo Sozialeko eta Udal Administrazioaren koordinatzaile nagusia.
- Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria.
- Udal Administrazioaren Saileko zuzendari nagusia.
- Zuzendaritza-batzordeko idazkaria: Udal Administrazioaren Saileko Idazkaritza Teknikoko administrazio orokorreko teknikaria.

Gerora, Funtzio Publikoaren Saileko zuzendaria zuzendaritza-batzorde horretan izatearen beharra ikusi zen, aztertu beharreko gairik gehienak Funtzio Publikoaren Sailekin zerikusia zuten eta.

Horrenbestez, zuzendaritza-batzordeak 2018ko ekainaren 19an egindako bilkuran, aho batez onetsi zen Funtzio Publikoaren Saileko zuzendari nagusia zuzendaritza-batzordeko kide izatea.

Hori guztia dela eta, Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen 124.4 k) artikulua ildotik —alkateari aitortzen baitio udal administrazio betearazlearen antolakuntza eta egitura finkatzeko ahalmena—, eta orobat aintzat harturik aplikatzekoa den gainerako legedia, hau

XEDATU DUT:

Funtzio Publikoaren Saileko zuzendari nagusia udal antolakuntza 39/2015 eta 40/2015 Legeetara egokitzeaz arduratzen den zuzendaritza-batzordeko kide izatea.



- Alkatetzako, Ekonomia Arloko eta Funtzio Publikoko koordinatzaile nagusia.
- Arlo Sozialeko eta Udal Administrazioarioko koordinatzaile nagusia.
- Alkatetzaren eta Erakunde Harremanen Saileko zuzendaria.
- Udal Administrazioaren Saileko zuzendari nagusia.
- Funtzio Publikoko zuzendaria
- Zuzendaritza-batzordeko idazkaria: Udal Administrazioaren Saileko Idazkaritza Teknikoko administrazio orokorreko teknikaria.

Dataren egunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 21ean.

ALKATEA

Gorka Urtaran Agirre.